

**BAKARRIZKETAN DIHARDUTEN ZUHAITZE-
TAKO HOSTO LEHORRAK**

Olatz Mitxelena Larreta, 15 urte

Oiartzun

Marokoar akordeoilariak
tango argentinar batez apaintzen ditu
ziutateko zubiak eta
kaleak eta
portuak eta
eraikinak.

Guztia apaintzen du,
marokoar akordeoilariaren
tango argentinarrak.
Baina, hala ere,
“Hotel Londres”eko terrazetan,
gorbatadun agure piano-jotzaileak
dihardu kantari.

Oinezkoen kale nagusian
egunerokotasunaren argazki handia dago
erakusgarri:
traje beltzez jantzitako
gizon gorbatadunen eskutik

zintzilik doazen
larruzko maleta
beltz misteriotsuen
amaigabeko joan-etorria.
Eta, bitartean,
akasozko keinuak
profeta bihurtzen dira,
txantxangorri lotsagabearen
paparoaren harrotasunean
kabituz ezinik.

Boteretsuenen esklabo,
arraunlari indiarrak
eta etiopiarrek
eta irakiarrek
eta...
egurrean landutako arraunekin
itsasoratu dira.
Estatubatuarrak
mundua konkistatzera omen doaz.

Kale izkina batean,
eskale batek,
kartoi zati baten azpitik
agurtzen du
egunsentiko ihintzaren freskura,
irribarretsu.
Eta
aldamenetik korrika
pasa zaion emakumeak
bere agendatxo elektronikoan idatzi du

Agatha Ruiz de la Pradaren azken diseinua
betiko dendan duela dagoeneko,
salgai.

Honela sortu da hitza,
ziutatearen erdian,
bakarrizketan diharduten
zuhaitzetako hosto lehorren
mintzotik.